



Pikabea, Azpeitia, Azpilikueta, Mendizabal, Aizpuru, Begiristain eta Artola, Txintxarri abesbatzako kideak. E. MAIZ

Txintxarri abesbatzak agur esan dio ibilbideari

Alegiako abesbatzako kideek belaunaldi desberdinen topaleku izan dela kontatu dute; 62 urteetan, kantua herrian zabaltu dutela, eta Alegiaren izena herritik kanpo ezagutzera eman dutela azaldu dute // 4-5

Asuncioneko langileek zuzendaritzari eskatu diote, negoziatzeko «borondatea» izatea

Negoiazioa «blokeatuta» dagoela salatu dute; Jaurlaritzari eta Tolosako Udalari «erantzukizuna hartzea eta publikazio proiektuari lehentasuna ematea» eskatu diete // 2

Siemens Gamesak «konpromisorik hartu gabe» jarraitzen du

Asteasuko enpresako langileek bost egunez lanuzteak egin dituzte; aurrerapausorik ematen ez bada borrokan jarraituko dutela esan dute // 3

Trikuharri Mendi Lasterketa egingo dute larunbatean

Villabonako Errebote plazatik abiatuta, bi ibilbide izango dituzte aukeran lasterkariak, 18 kilometrokoa eta 28koa // 7

Sareak indartzea, auzolana sustatzeko giltza

Auzolangin(l)tza proiektuaren barruan, komunikazioaz edota komunitateaz aritu dira // 2



Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Komunitatea edo sareak indartzean dago gakoa

Auzolanetan komunikazioak duen eraginaz, sareak indartzeaz edota erronkei denen artean erantzuteaz aritu dira, Auzolangin(l)tzaren barruko tailerrean

Iñigo Terradillos Gaztañaga
Alkiza

Auzolangin(l)tza proiektuaren barruan, bigarren prestakuntza tailerra egin dute, Alkizako Ur Mara gunean. Lehendabiziko tailerrean auzolana arautzeaz aritu ziren, eta bigarrengoan sozializazioarekin eta komunikazioarekin lotutakoak landu dituzte, Ion Muñoa Deustoko unibertsitateko irakaslea eta komunikazio arloko ikerketa taldeko kidearekin eta Naiara Goia Arantzazulab-eko zuzendari nagusiarekin.

Koldobika Jauregi Ur Mara guneko arduradunak auzolanaren garrantzia azpimarratu du. Natura eta artea batzen dituen proiektua dela Ur Mara azaldu du, eta diru laguntzak jaso arren, horiek ez dutela aurrekontuaren %8 gainditzeko nabarmendu du. «Auzolana bizirik dago oraindik; gurean, esaterako, 30 pertsona inguru aritzen dira antolatzen ditugun ekimenetan laguntzen, beraz, Ur Mara auzolana da batik bat».

Komunikazioak nola lagundu dezakeen berritu eta indartu nahi den auzolan prozesuetan. Hori izan du hizpide Ion Muñoak. «Auzolan deialdi bat dagoenean, askotan komunikazioaren alderdi bati begiratzen diogu, eta jendeak parte hartzen ez badu iruditzen zaigu ez dela ondo iritsi mezua edo kanalean huts egin dugula». Bada, Muñoaren ustez, hori arazoaren zati bat izan daiteke. «Komunikazioa komunitatearen gizarte interakzio nagusi bezala ulertuta, egin behar duguna da komunitate hori indartzeko komunikazioan pentsatu, eta ez bakarrik komunikazioa modu instrumental batean».

Azken batean, auzolana indartzea komunitatea indartzeko bide bat gehiago dela dio Muñoak, «auzolana komunitate batek behar batzuei erantzuteko duen antolakuntza mota bat baita. Komunikazioa, berriz, komunitate batek dituen gizarte interakzioetarako tresna nagusia». Komunitatearen bizitasunak eragina



Naiara Goia hitzaldia ematen, pasa den ostiralean, Alkizako Ur Maran. I.T.

duela aipatu du: «Herri txiki bat izan dezakegu, baina bertako herri bizitza edo komunitatearen parte direnak erdia baino gutxiago izatea; herri handiagoa den heinean, bizitzeko modu gehiago daude, kanal gehiago, eta ba-

«Auzolana, komunikazioa eta komunitatea uztartu daitezke herri bizitza indartzeko»

ION MUÑOA
DEUSTOKO UNIBERTSITATEA

dirudi zailagoa dela iristea, baina ez da beti horrela izaten, gaur batzuetarako errazagoa izan baitaiteke». Herrian dauden komunikazio sistemak, komunikabideak edota erlazio moduak aztertu behar direla dio Muñoak, eta horren arabera antolatu tokian tokiko ezaugarri eta berezitasunetatik abiatuta; «auzolan proiektuak eta prozesuak desberdinak izaten dira herri bakoitzean eta tamainaren arabera, baina uste dugu logika berbera jarraitu daitekeela, hau da, auzolana, komunikazioa eta komunitatea uztartu daitezkeela herri bizitza indartzeko, eta horrek auzolana eta herria bera hobetzea ekarriko du».

LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA

Auzolanaren berrikuntza edo eguneratzeari nola egin ekarpena beste eredu batzuetatik. Ho-

rretan jarri du azpimarra Naiara Goiak. Gizarte berrikuntza laborategia da Arantzazulab eta lankidetzazko gobernantzan jartzten dute fokua; «erakundeak eta gizarte elkarrekin interakzioan aritzeko eta elkarrekin agenda publikoa eraikitze harriman eredu berria bilatzen du, eredu horizontalagoa». Gizarte berrikuntzak eragile ezberdinen arteko harremanak beste modu batean egiteko tresnak eta eraginkorragoa izateko metodoak eskaintzen dituela esan du Goiak; «eraldaketa kolektiborako giltza izatea da asmoa». Gizarte berrikuntzaren arloan egiteko eta pentsatzeko moduak daude; «ideia da berrikuntza hori eraginkorragoa eta inklusiboagoa izatea auzolanean».

Lankidetzazko gobernantzaaren adibide moduan, Tolosan egingo duten herritarren batzarra jarri du. «Beti betikoei parte hartzen dutenaren ideia ekiditea ere badute helburu horrelako dinamikek». Izan ere, kasu honekin, zozketa bidez aukeratzen dira batzarrean parte hartzen duten herritarrak, eta gaiak jorratzen hasi aurretik adituekin egoten dira informazioa jasotzen. «Tolosaren kasuan, ongizate emozionalaren gaia jorratuko dute, urritik abendura bitarte izango da, eta herritarrek emango dituzten gomendioei jarraipena emateko konpromisoa hartu du udalak».

Teknologiak harremanetan, komunikazioan eta auzolanean nola eragiten duen ere azaldu du. «Gaur egungo faktore eraldatzaile nagusienetako bat da, guztiz aldatu baitizkigu interakzio sistemak». Bere ustez, teknolo-

«Geroz eta gizarte indibidualistagoa dugu; ditugun erronkei ezin diegu bakarka erantzun»

NAIARA GOIA
ARANTZAZULAB

giak zer paper jokatu dezakeen identifikatu behar da, «harremantze ereduak, auzolana edota aktore ezberdinen arteko sareak indartzeko eta eraginkorrako egiteko». Geroz eta «indibidualistagoa» den gizarte dugula dio Goiak, «baina, parez pare ditugun erronkei ezin zaie bakarka erantzun. Sareak indartu behar dira eragile ezberdinen artean, eta guztioi eragiten diguten erronkei denen artean erantzun».

GIDA BATEAN BILDUTA

Tolomendi eskualdeko landa garapen agentziatik adierazi dutenez, uda ostean, Auzolangin(l)tza proiektuaren barruan jorratu diren gaiak eta irakaspenak gida praktikoa batean bilduko dituzte, «auzolanaren kultura zabaltzeko instrumentu praktikoa bat sortuz».

Haur eskolan matrikula egiteko epea zabaldu dute

HERNIALDE // Haur eskolan izena emateko epea zabalduko dute jada eta uztailaren 21era arte izango da horretarako aukera. 16 aste beteta izan beharko dute haurrek izena emateko. Matrikula egiteko inprimakiak Hernialdeko udaletxean izango dituzte eskura interesdunek eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da bertan. Informazio gehiagorako 943 65 44 94 telefonora hots egin daiteke.

Larresoroko festarako irteera antolatu dute

LEABURU-TXARAMA // Larunbaterako Larresoroko (Lapurdi) harrizko zubiko jaietan parte hartu nahi dutenentzat irteera antolatu du Leaburu-Txaramako Udalak. Urteroko moduan, bazkaria eta hainbat ekitaldi izango dira. Udalak autobusa jarriko du. Leaburuko plazatik abiatuko da 08:45ean eta Txaramako paper fabrikako geltokian egingo du beste geldialdia 09:00etan. Izena emateko 943 67 59 31 zenbakira deitu beharko da.

Apar festa egingo dute ostiralean Emeterio Arresen

IBARRA // Oporretan euskaraz udaleku irekiek eta Gazte Zulo zerbitzuak Uda Fest antolatu dute ostiralerako, zerbitzuaren amaiera ospatzeko. Jai egunaren barruan apar festa egingo dute Emeterio Arrese parkean 16:30etik aurrera, eta herriko haur zein gazte guztiei irekita egongo dela esan dute.

Ezkeltzu inguruan egin nahi duten parke eolikoa hizpide

ZIZURKIL // Parke eolikoei buruz mahai-ingurua egingo dute bihar, osteguna, 19:00etan Zizurkilgo Iriarte kultur etxean, Andatza-Ezkeltzu Bizirik plataformak antolatuta. Green Capital enpresak Ezkeltzu inguruan parke eoliko bat eraikitze ekimena aurkeztu du eta plataformak dio ia 200 metroko altuerako errota erraldoiak eta errepide zabalak jasotzen dituela proiektuak, «txikizioa, energia berdearen izenean». Proiektuaren inguruko azalpenak emango dituzte.

Langileek salatu dute «blokeatuta» dagoela negoziazioa

Asuncioneke zuzendaritzari negoziatzeko «borondatea» izatea eta Eusko Jaurlaritzari eta Tolosako Udalari «erantzukizuna hartzea» eskatu diete

Erredakzioa

Tolosako Asuncion klinika ku-deatzen duen Inviza enpresako langileek hitzarmenaren negozi-azioa «blokeatuta» dagoela sa- latzeko elkarretaratzea egin dute. Maiatzean hasi ziren zu- zendaritzarekin bilerak egiten, eta salatu dutenez, «zuzendarit- zak murrizketak besterik ez ditu proposatzen».

Ospitaleko langileek zerbitzu publikoa eskaintzen dutela go- goratu dute, «beste eskualde ba- tzuetan Osakidetza egiten due-

na», eta urteak daramatzatela «lan baldintza duinak» borroka- tzen. Hala, lan jardunari begira, «administrazioko azpikontrata- zio askotan astean 35 ordu lan egiten dutenez», hori hartzen dute erreferentzi moduan hit- zarmen berrirako, eta soldata igoerari dagokionez, KPIaren arabera izatea eskatzen dute, «onargaitza baita negoziazio hon- en ondoren, langileak lehen baino pobreakoak izatea».

Langileek hitzarmena «bloke- atuta» dagoela salatzearekin ba- tera, negoziazio bileretan gerta-

tutakoa ere jarri dute mahai gai- nean: «enpresak ukatu egiten die sindikatuari aholkulariekin joa- tea, edozein negoziazioetan egi- ten den moduan, kasu honetan, ELA-rekin eta LAB-ekin». Eta, ai- tzitik, enpresak bere aholkularia eramaten duela bileretara argitu dute.

Maiatzean izan zuten azken negoziazio mahaia, eta zuzenda- ritzak «oso eduki eskasak» aur- keztu zituela esan dute. «Bost ur- teko indarraldia proposatzeaz gain, aurten %2ko soldata igoe- ra, eta 2023-2026 urteetan Osaki-



Asuncion klinikako langileek elkarretaratzea egin zuten atzo. I. TERRADILLOS

detzako langileentzat onartzen denaren baliokidea urte bakoit- zeko; gainera, lanaldiari dago- kionez, 5 orduko murrizketa urte bakoitzeko». Bada, proposamen hori «guztiz onartezina» dela diote, «2022rako erosmen ahal- mena %4,5 galtzea izango litza- tekeelako edota indarraldia oso luzea delako».

LANGILEEN ETORKIZUNA

Bestalde, Asuncioneke langileek gogoratu dute, «hainbat urteta- ko mobilizazioen eta langileen eta herritarren borrokaren ondo- ren», Tolosaldeko ospitale publi- koa izango duela erabaki dela. «Plan funtzionalaren berririk gabe jarraitzen dugu, hau da, ez

dakite oraindik zer ospitale mota izango den, ez eta zein zerbitzu izango dituen ere». Ospitaleko langileen etorkizunaz ere, ez da- goela berririk esan dute.

Hala, Asuncioni negoziatzeko «borondatea» izatea eskatzeare- kin batera, Eusko Jaurlaritzari eta Tolosako Udalari «negozia- zioan erantzukizuna hartzea eta Tolosaldeko ospitaleko publifi- kazio proiektuari lehentasuna ematea» eskatu diete. «Ospitale publikoa izatea %100ean eta hurbileko eskualdeko ospitale batek izan ditzakeen zerbitzu guztiak eman ditzala Asuncion ospitalean hainbeste urtez zerbi- tzua eskaini duten langile guz- tiekin».

«Konpromisorik hartu gabe jarraitzen dute»

Erredakzioa Asteasu

Asteasuko Siemens Gamesako langileek pasa den astean lanuz- teak hasi zituzten enpresaren etorkizuna eta berau kokatuta dagoen GET dibisioarena «aire- an» ikusten zutelako. Bada, bost egunetan lanuzteak egin ostean, langileek «etorkizuna bermatu- ko dien» akordiorik gabe jarrai- tzen dutela esan dute LAB sindi-

katutik, «enpresak konpromiso- rik hartu gabe jarraitzen baitu».

Egoera ikusita, «langileen lan- postuak eta lan baldintzak man- tentzeko bermea eta etorkizuna bermatuko dien industria plan batean konpromisoak hartzeko» exijitu diote enpresari. Sindika- tuak esan du aurrerapausorik ez badago, irailean langileek «eu- ren etorkizunaren defentsan» borrokan jarraituko dutela.

Asteasuko lantegiak 200 lan- gile ditu. Iragan asteko batzarre- an, lanuzteak egitea erabaki zu- ten, eta bost egunez ordubeteko eta bi orduko lanuzteak egin di- tuzte. LAB-ek azaldu duenez, proiektuaren etorkizunari bu- ruzko kezka azaldu die Jaurlari- tza eta gainerako erakundeei eta enpleguaren, teknologiaren eta ekoizpen guneen defentsan ja- rrera tinkoa izateko exijitu die.



Atzo egin zituzten langileek lanuzteak bosgarren egunez. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu

Alegiako Txintxarri abesbatzak 62 urteko ibilbideari amaiera eman berri dio; «pena handiz» bada ere, abesbatzako parte hartzaileen beherakadak eraman ditu erabakia hartzera

Txintxarriak isildu dira

Eneritz Maiz Etxarri

Ibilbide oparoa izan badu ere, Alegiako Txintxarri abesbatzak kantatuak ditu jada bere azken notak. Uztailearen 2an eskaini zuten eliza bete jende parez pare zutela azken kontzertua. TOLOSALDEKO ATARIA abesbatzako kide izan direnetako batzuekin elkartu da. Amane Aizpuru eta Oñeka Artola dira gazteenak 19 urterekin, eta sei urtetatik aritu dira kantuan. Mirari Mendizabalek antzeko bidea du egina, hau da, umetatik hasi eta bizitza osoa eman du abesbatzan. Maite Azpeitia ere 10 urtetatik aritu da kantuan. Nerea Pikabea ikaztegietarra izan arren, 17 urterekin hasi eta orain arte jarraitu du abesbatzako kide izaten. Ibon Azpilikuetak ere Alegian jaioa ez izan arren, 22 urte eman ditu kantuan. Eta Mila Begiristain da beteteranoena. Umetan hasi eta 65 urte egitera doala aitortu du, eta «bizitza oso-oso» eskaini dio abesbatzari. 1974tik hutsik egin gabe aritu da.

Amaiera hitzak gauza asko bateratu ditu abesbatzan. «Behera-ka zihoan», aitortu dute, eta gero etorri zen COVID-19a. «Horrek beste atzerakada bat eman zion», kontatu du Begiristainek, eta «geroztik batzuk ez ziren bueltatu». Azken 32 urteetan zuzendari izan den Garbiñe Orbegozo herritarrak esana zien 60. urteurrenara iristean utzi egingo zuela. Despedida bi urtez atzera-tu bada ere, Txintxarri abesba-



Azken kontzertua eskaintzeko elkartu ziren Txintxarri abesbatzako kideak, hilaren 2an. ATARIA

tzaren ibilbidean guztiaren batura izan da amaieraren iturri.

Begiristainek garbi du: «Garbiñe utzi ez balu ere, hau beheraka zihoan». Abesbatzari «txukun» dagoela eman nahi izan diote bukaera. Ordezkoa bilatzeko ere jakin behar zuten zenbat kide zeuden jarraitzeko prest, eta galdera luzatu du: «Eta Garbiñe aguantatu diguna aguantatuko al zigun beste norbaitek?». Gogora ekarri dute azkenaldian entseguetan behin eta berriz jende askok egiten zuela huts.

«Pena» hitza erabili dute. Azpeitiak dio: «Jada ez gara ostegunero elkartuko». Txintxarri abesbatzak jende ezberdina elkartze-

ko eta lagunak egiteko balio izan die. Belaunaldi ezberdinen topaleku izan da, eta sozializatzeko beste gune ezberdin baten moduan zuten abesbatza: «Bakoitza bere lagunartea duena da».

AZKEN KONTZERTUA

Hilaren 2an eskaini zuten azken kontzertua Alegiako elizan, eta Mendizabalek, esaterako, «emozio askorekin» bizitu zuen: «Alde batetik poza, eta bestetik pena. Hainbeste urtetan altxor bat izan da Txintxarri abesbatza Alegia bezalako herri txiki batentzat. Azken batean kantu korala herrian eta herritik kanpo zabaldugu, eta baita herriaren izena ere».

«Oso hunkigarria eta berezia izan zen», dio Pikabeak, eta Begiristainek gaineratu duenez, jende asko izan zen.

Eliza bete zuten herritarrek azken kontzertuaz gozatzeko: «Beti izaten zen jendea, baina aspaldiko urteetan ez zen hainbeste jende elkartzen». Aizpururentzat «egun bete» izan zen. «Estresantea ere bai pixka bat, hainbeste entsegu eta azken kontzertuaren presioa ere bagenuen». Artolak aitortu duenez, berriz, oraindik ez zaio iruditzen bukatu denik.

Umeen kontzertuarekin jada hunkitu zela esan du Azpilikuetak. Azpeitiak, aldiz, «oso urdu-ri» hasi zuela kontzertua adierazi

du, eta hirugarren kantutik aurrera jada «lasaiago» kantatu zuela.

Orbegozo zuzendariaren jarra nabarmendu dute: «Barrutik eramango zuen berea, baina lasaitasuna transmititu zigun».

Taldetxo bat martxotik aritu zen azken kontzertua prestatzen, eta Orbegozori zer egin, zer oparitu... «Guztia itxita genuen, baina ez genekien Garbiñe nola erreakzionatuko zuen egunean bertan», zehaztu du Azpilikuetak. «Berak horrela jaso izana beste opari bat izan zen», dio. Aho batez, bizitu egin zuten azken kontzertua, eta «ondo pasa eta disfrutatu» egin zutela aitortu dute guztiak. Ospakizun moduan definitu dute.

Kontzertuaren ostean, ordea, herritarrengandik jaso zuten galdera: «Horrela utzi behar al du-zue?». Baina, azken kontzertuko errealitatea ez zela benetakoa zehaztu dute: «Ostegunetakoa zen errealitatea». Eta pandemia osteko entseguen baldintza ia-ia amaierako azken kontzertua prestatzea zela esan dute. Behar bezalako bukaera eman ahal izateko konpromisoa hartua zuten hainbat kidek. «Azken hiru asteetan hasi zen berriz itxura hartzen», nabarmendu du Pikabeak. Jende asko faltatzen zela entseguetan kontatu dute.

Gizonezko bakarrak azpimarra jarri du: «Galerarik handiena hortxe dago, gizonetan. Ni izan naiz gazteena, eta ia azkena sartu dena». Umetatik hasita beti mutil gutxiago izan direla esan dute. Nesken erreleboa erraza-

*Irribarra ahoan
eta baita soinean ere!*

irribarra denda

Tantzi irribarra!



UZTAILEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik larunbatera: 10:00-13:00

ABUZTUAN

1etik 27ra itxita

Euskal Herria, 7 · Ibarra

Online denda: kilometroak.eus/Denda



goa izan dela. Urte guzti horietan ehunka herritar pasa da abesbatzatik, baina guztira hogeita bost bat pertsona biltzen zituen taldea izan da Txintxarri abesbatza.

Hiru pertsona izan zituzten gogoan, baina, batez ere, Garbiñe Orbegozo izan zuten; «merizimendu osoz honaino ekarri gaituelako», dio Pikabeak, eta «asko ahalegindu da korua berritzen, nahiz, eta oso zaila den».

Koru musika bultzatzeko laguntza aldetik ere asko ez dagoe la esan dute; «guri udalak eta bazkideek eman digutelako eta guk jarritakoarekin moldatu gara», esan du Pikabeak, baina «partiturak sortzeko-eta diru laguntza handirik ez da, eta ezta kontzertuak antolatzeko ere».

Aipatu gabe ezin utzi abesbatzari lagundu dion piano-jotzailea, Mariaje Rekondo herritarra, urteotan egin duen «lan eskergarengatik». Eta gogora ekarri behar da 1959. urtean Joxe Gastesiren gidaritzapean eman zituela lehen pausoak abesbatzak. Gizon eta emakumezkoena zen korua sortu zuen, eta elizako lotu-retatik kanpo zegoena. Txintxarri elkarteak bultzatu zuen ekimena ere izan zen.

Amaiera eman behar diotela jakitean herritar askok harrituraz hartu duela albisteak kontatu dute, eta «pena» agertu dietela. Betikoa dela azpimarratu du Mendizabalek: «Hor dagoenean ez dugu baloratzen eta galtzeko arriskua ikustean edo behin galtzen dugunean, orduan hasten gara pena hori jasotzen». Pikabeak zehaztu duenez, «jendeak pentsatu du Txintxarri abesbatza beti hor egongo zela, baina elikatu egin behar da».

LAGUN ARTEKO HARREMANAK

Belaunaldi berrien etorrera «naturaltasunez» hartu dute, urtez urteko joan-etorrian. «Izugarrizko poza ematen dizu» esan du Azpilikuetak: «Tonto kaletik pasa eta kasu egitea bakarrik, beste batzuk egon daitezke, eta



SUZIRIARI SU EMATEKO OHOREA

Pasa berri dira Alegiako Karmen festak, eta ostegunean, Txintxarri abesbatzako kideek bota zuten festei hasiera eman zien txupinazoa. Abesbatzaren ibilbidearen amaiera iragartzearekin batera, herriak omenaldia egin zien abesbatzako kideei. Udaleko balkoia alderik alde bete zuten, eta, nola ez, kantuan hartu zituzten plazan elkartu ziren herritarrek. Trapu zaharrak eskuan, Trapu Zaharrak abestia kantatu zuten, azken aldiz, udaletxeko balkoitik. E. MAIZ



Hilaren 2an Alegiako elizan eskaini zuten azken kontzertuko une bat. T. GOMEZ



Txintxarri abesbatzako kideak, 2019ko apirilean. ATARIA

ez dago harremanik, eta kanpora joatean edo bidaietan, harreman politikak sortzen dira, eta egunerokoan mantentzen dira. Niretzat oso polita da». Guztiek azpimarratu dute nahiz eta belaunaldi oso ezberdinak izan lagun egin direla. «Eta maila berean jartzen gaitu», dio Pikabeak. «Helduagook ez dugu meritu gehiago». Azken batean guztiek zuten ardura bera: ondo kantatzea.

Maila berean daudela, baina Aizpuruk esan du nabaria izan dela familiako kide txikienak zirela bidaietara-eta joandakoan: «Gurekiko duten maitasuna». Orbegozorengandik ere antze-man dute, «guregana ezberdin zuzentzen zen zenbait momentutan».

Azpeitiak azpimarra jarri du: «Urte askotan ostegunero-ostegunero elkartu gara». Baina batik bat, harremanak bidaietan sortu dituztela esan dute, edota gero-ko afarietan.

«Helburu batekin ari zara prestatzen, ez da entseguetara

etortzeagatik zatozela», dio Mendizabalek. «Ondo pasatzeko modu bat da, eta elkarren artean harremanak sendotzeko». Aho batez azaldu dute bidaia guztietan «oso ondo» pasa dutela. Gazteenak ere desiratzen egoten zirela bidaiatzeko nabarmendu dute.

Txintxarri abesbatza beraientzat zer izan den galdetuta, bizitzako zati Mendizabalentzat, Pikabeak bizitzako momentu politenetako batzuk bizi izan ditu, gustura egiten ari zaren zerbait izan da Begiristaintentzat, familia bat Azpilikuetaentzat, ondo pasatzea eta harremanak errazak izan dira Azpeitiarentzat...

Bi zuzendariak herritarrek izateak eta familia horretako kide izateak ere iraunarazi duela korua azaldu du beterranoenak.

HARIA EZ DUTE ETEN NAHI

Abesbatza amaitu den arren, Txintxarri elkarte moduan jarraituko du aurrera. Momentuz ez dute ezer esku artean, baina bai Eguberri bezperan eta baita Santa Ageda bezperan ere, abesbatza moduan ez bada ere, kantuan aterako dira Alegian. «Gorpuztu egin behar dugu, baina nahikoa egingarri ikusten dugu», dio Pikabeak. «Orain artean koru batek hiru-lau ahotsetara kantatzeko kantuak izaten ziren, eta kantu berriak aukeratu beharko ditugu».

Horrez gain, kantu afari bat antolatzekeo ideia ere badutela buruan gaineratu du Azpilikuetak; «ea ba ote den jende berria kantua gustatzen zaiona edo herrian zein behar dauden ikusi nahi dugu». Koru moduan kantari ez bada ere, «musika arloan zerbaitekin jarraitu nahiko genuke», azpimarratu du Begiristainek.

Txintxarri Txikik jarraipena izango du, Loatzo musika eskolak hartuko duelako bizirik mantentzeko ardura. Beraz, kantuak ez du etenik izango txintxarrien artean.



1 BBK Karpin Abentura FAUNAREN BABES ZENTRUA

Lagun birentzako bina sarrera

KARRANTZA
626 622 245
infokarpin@gmail.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

Parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefono zenbakira edo sartu Ataria.eus webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun izateak badu saria zozketa

2 LEARTIBAI ONDAREAREN

kalitatezko kontserba eta produktu sorta

Laneko Koop. Elkartea
Okamikako industrialdea, 2 5 A
48289 Gizaburuaga.
94 684 20 26
www.bbkazoka.eus/eus/kolekzioak/laneko

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 TXITXIRIO euskaraz eginak

Kamixeta bana bi lagunentzat

www.txitxirio.eus
656 788 351

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



Ausa Gaztelun pista sareak eraiki nahi dutela salatu dute

Naturkon, Aralar Bizirik plataforma eta Gipuzkoako natur talde eta ekologistek Larraizko langan eman dute jakitera Gipuzkoako Foru Aldundiak Abaltzisketan egin nahi duena

Eneritz Maiz Etxarri
Abaltzisketa

Aralar Bizirik plataforma, Naturkon eta Gipuzkoako natur talde eta talde ekologisten ordezkariak gizarteari jakinarazi nahi izan diote Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza nagusiak Aralarren, zehazki, Abaltzisketako lurretan den Ausa Gaztelu mendiaren magalean pista sareak eraiki nahi duela, bederatzi kilometro koadroko eremuan.

Pista sare horren helburua Abaltzisketako Egidio mendi publikoko izei eta pago landaketa eremuetan baso lanak egitea dela azaldu dute. «Orain 40 urte landatu ziren zuhaitz horiek eta ez ziren behar izan orain dauden baino pista gehiago», esan dute. Gainera, «pista sareak justifikatzeko esaten da abeltzainek ezin dituztela Txindoki eta Ausa Gaztelurako oinezko bideak erabili, mendizale asko eta txakur solteak dabiltzalako», salatu dute. Baieztapen horrekin, «bizikidetzatza ona gutxiesten» dela diote, eta «guztiona» den mendian, elkarbizitza «ezinbestekoa» dela. Txakur solteen kasuan, neurriak hartzea erakundeei dagokiela azpimarratu dute. «Baina, pista sarearen helburua zuhaitziak badira, zertara dator txakur eta oinezkoen kontu hau?», galdera luzatu dute, eta zalantzan jarri: «Zuhaitziak ez ote dira aitzakia ganaduzaleentzat pistak irekitzeko?».

Pistek «sekulako eragina» izango dutela mendian adierazi dute: «Lurzoruaren higadura gehiago, eremu horretako %12



Larraitzeko langan egin zuten agerraldia, atzo, natur eragileek. E. MAIZ

gutxienez galduz, eta eremu horretako lur azpia komunikatuta dago Zaldibiako Osinbeltz iturburuarekin. Pista proiektuak kutsadura areagotzea ekar dezake zaldibiarrentzako ur edangarrian». Faunari dagokionean, berriz, ez dela kontuan izan galtzeko arriskuan dagoen baso saguzarra esan dute.

Pista sarearen %90 natur parkeko babes barrutian dagoela salatu dute, eta aldundiak duen legediaren arabera, pistetatik kanpo, berez ibiltzen den makineria astunarekin lan egitea debekatzen dle gogoratu dute. «Gainera, lurzorua eraldatu dezaketen lan guztiak debekatzen direla dio, aldaketa zuloak egiteko eta sarbideak iraunarazteko lanak salbu». Egin nahi diren lanei begira, egur materialak menditik ateratzeko, kablea edo lurzorua-arentzat inpakturik ez duen antzeko erabideren bat erabiltzea ezinbestekoa izango dela diote.

Zuhaitziari dagokionez, «lotsagarria» dela esan dute ingurumen eraginaren txostena egin

duen EKOS enpresak Txindoki eta Ausa Gaztelu iparraldeko magaletako basoak, «masa heterogeneoa eta zaharkitutzat» hartzen dituela, Aralarko baliabideen planean «balio ekologiko handiko ekosistematzat» hartzen direnean.

Bestalde, aldundiak dokumentazioa jendaurrean gazte-eraz bakarrik jarri duela eman dute ezagutzera, eta epea abuztuan, «opor hilabetea» bukatzen dela kontuan hartuta, epea geldiarazteko eskatu dute, dokumentazioa euskaratu arte, eta abuztua ez kontatzeko eskatuz. Ez dutela erantzunik jaso aurreratu dute. «Aldunditik proiektua ezkutatzeko asmoa nabarmen-tzen dugu, Gipuzkoako buletinean argitaratu ez dutelako».

BALORAZIO NEGATIBOA

«Beste astakeria baten aurrean gaude», diote natur eragileetako ordezkariak, eta horregatik, Aralar mendiarekin lotura duten elkarrekin ezberdinei edota besterik gabe, Aralar babestu nahi dute-nei; Aurki publiko egingo duten balorazio negatiboa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzeko eskatu diote, «ingurumen txostena ontzat ez emateko eskatuz», «Abuztuaren 7a baino lehen egin beharko da, aldundiak ikus dezan gipuzkoarrok Aralarko parke naturala kontserbatu nahi dugula».



Iñaki Gomez. ATARIA

Iñaki Gomez, Lauburu klubaren egiturako partaide berria

Lanpostu berri bat sortu du areto futboleko Lauburu Ibarra klubak bere egiturari, Negozio Garapen eta Marketin arduraduna, eta Gomezek beteko du zeregin hori

Erredakzioa Ibarra

Areto futboleko Lauburu Ibarra klubak, erkidegoko enprekin eta entitateekin lankidetzan hazteko estrategiaren barruan, Iñaki Gomez gehitu du bere antolaketa egiturara, klubaren Negozio Garapen eta Marketin arduradun gisa. Lanpostu berria sortu dute Lauburun, «erakundearen egonkortasunean eta hazkundean jauzi bat eman nahi duena, eta laster aliantza estrategikoak sortuko ditu bazkide berriekin».

Iñaki Gomez gasteiztarra enpresaren munduko profesionala da, eta 20 urte baino gehiagoko esperientzia dauka kirol entitateen kudeaketan. «Lauburu Ibarra marka balio handiko marka da euskal areto futbolaren esparruan, baina, gainera, apustu irabazlea da arlo sozial eta fiskalean ere. Hori da gure benetako hazkunde eredua, eta balio hori transmititzea izango da klubeko nire zeregin nagusia», azaldu du Gomezek bere lehen adierazpenetan.

Klubeko zuzendaritza batzor-

deak funtsezkotzat jo du Gomez taldean sartzea: «Oso kontziente gara haren profilak proiektuaren garapenean duen balio estrategikoaz, eta aspalditik ari ginen arlo hori modu profesionalean landu zezakeen pertsona baten bila. Iñaki, profesionala izateaz gain, gure kirolaren maitalea ere bada, eskarmentu handikoa, eta, bere egitekoa zaila dela jakinda ere, gurekin lanean hasterekin batera sentitzen dugun poza erabatekoa da». Klubetik gaineratu dutenez, «orain, eskura daukaguna egokitu, eta pazientzia izan behar dugu, marketinaren eta babesletzaren munduak ez baitu larrialdiez ulertzen».

Orain arte arlo horretan lanean aritu diren zuzendariak ondo dakitela hori gaineratu dute Lauburutik. Horrekin guztiarekin, ongi-etorria eman diote Gomezi, eta ahalik eta «arrakasta gehien» opa diote, «jakinda gaurtik aurrera indartsuagoak garela: gure babesleak eta laguntzaileak hobeto zainduta egongo direlako, eta klub gisa dugun irudia eta proiektzioa esku onenetan dagoelako».

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Garbiketa lanak. Tolosaldean, garbiketaren esperientzia duen pertsona baten bila gabe. Villabonako zentro baten garbiketarako, ostegunetik asteartera, astean 24 ordu izanik (05:30etatik aurrera). 943 670 626.

Galdutakoak

Betaurrekoak. Larraulgo ur depositoreen ondoan eguzkitako betaurreko beltzak galdu ziren uztaillaren 17an, Oakley markakoak. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez, deitu 688 859 594 telefono zenbakira.

Bi ibilbiderekin hasiko du bidea Trikuharri Mendi Lasterketak

Villabonako Triatloi Taldekoek antolatu dute, eta larunbat goizean izango da, Errebote plazatik abiatuta; ibilbide motzak 18 kilometro ditu eta luzeak 28 kilometro



Belabietako gailurretik igaroko dira proba motzeko zein luzeko parte hartzaileak. INIGO GARCIA

Imanol Garcia Landa
Amasa-Villabona

Villabonako Triatloi Taldeko kide batzuk antolatu dute I. Trikuharri Mendi Lasterketa. Horiari bat da Hassan Ait Chaou mendi lasterkaria, eta horrelako proba bat antolatzearen arrazoia azaldu du: «Orain dela urte batzuk pentsatu genuen zerbait antolatzea, arrakasta handia baitute horrelako lasterketek, baino gero pandemia etorri zen, eta ezin izan genuen lehenago gauzatu. Aurten, ikusi genuen egoera buelta ematen ari zela eta antolatzea pentsatu genuen».

Larunbat honetan egingo da proba, herriko Santio festak hasi bezperan. «Uste dugu data ona dela, hurrengo egunean hasten direlako Villabonako festak», esan du Ait Chaouk. «Ea egun ona ateratzen den eta dena ondo doan». Eguraldi iragarpenek ez dute ematen pasa den asteburuan egindako beroa, eta, alde horretatik, egunean bertan egiteko aukera izango dela aurreikusten dute.

Hasiera batean hiru ibilbide jarri nahi zituzten antolatzailerak. «Gure helburua ahal den parte hartzaile gehien izatea da, denek aukera izatea», esan du Ait Chaouk. Azkenean bi ibilbide izango dira, 18 eta 28 kilometrokoak. 10 kilometroko bat ere prestatuta zuten, baina parte

hartzaile kopuruaren inguruan eragozpenak jaso zituzten Gipuzkoako Foru Aldunditik. «800 parte hartzailearentzat aukera eskaini nahi genuen hasiera batean», esan du Iñigo Garcia antolaketazako kideak, «baina azken urteetan irizpide berri bat sartu da eta horren arabera gehienezko kopurua 350 partaiderena da. Azken momentuan 500 pertsonarentzat utzi digute, baina hasieran beste aukerarik ez genuenez, ibilbide motza aurtengorako kendu egin behar izan dugu».

Hori horrela, proba bakoitzarako 200 dortsal zehaztu zituzten, eta ikusirik proba motzean jende gehiagok eman duela izena, parte hartze kopurua zabaldu egin dute proba horretarako. Astelehen arratsalderako 320 lasterkaririk eman zuten izena bi proben artean. Bihar da azken eguna izena emateko, 20:00ak arte, eta *Kronoak.com* webgunean sartuta egin daiteke.

INGURUKO GAILURRETATIK

Amasa-Villabona inguruko gailurretatik ariko dira korrika parte hartzaileak. Ait Chaou bera eta Alberto Medrano izan dira ibilbideak diseinatu dituztenak. Ibilbide motza egingo dutenak kanaletako bidetik joango dira, gero Belabietatik igaroko eta Loatzoko ondoren Villabonara jaisteko. 916 metroko malda positiboa du.

Ibilbide luzea ere kanaletako bidetik hasiko da. «Hortik aurrera, guretzako xarma berezia duten mendi batzuk sartu ditugu, ez direnak hain ezagunak: Kiriki, Muñotsa eta Arnabar. Gero Belabietara, Uzturre eta Loatzotik egingo dute bidea», azaldu du Ait Chaouk. 1.358 metroko malda positiboa izango du ibilbide luzeak.

Errebote plazatik abiatuko dira bi probak eta bertan bukatuko dira. 28 kilometrokoa 08:30ean hasiko da eta 09:00etan 18 kilometrokoa. Luzea osatzeko denbora muga sei ordukoa jarri dute, eta lau ordukoa motzarentzat. «Herri lasterketa bat izanik, dezenteko tartea eman nahi genion parte hartzaileei», esan dute antolatzailerak.

Bazkaltzeko aukera ere jarri dute. Parte hartu nahi duenak, izena ematerakoan bazkaltzera geratzeko dela adierazi beharko du horretarako dagoen laukitxoak aukeratuz. Bestalde, egunean bertan txartel batzuk jarriko dituzte salgai bost euroan, lasterkariei laguntzen etorri eta bazkaltzera geratzeko asmoa izanez gero. Bazkaria Irrintzi elkartekoek prestatuko dute eta Ikastolaren Txermin eraikinaren eremuan egingo da. Bestalde, ehun boluntario inguru ariko dira laguntzen, eta antolakuntza taldekoek biziki eskertu dute herritarren prestutasuna.



Ander Martinez de Rituerto, podiumean, ezkerrean, domina jasotzen. ATARIA

Ander Martinez de Rituertok urrezko domina, Espainiakoan

Erredakzioa

Atletismoko 20 urtez azpiko Espainiako Txapelketa izan da jokoan asteburuan eta bertan eskualdeko hainbat atletek parte hartu dute. Emaizta nabarmena Ander Martinez de Rituertok lortu du, Real Sociedad taldeko pertika jauzilari tolosarrak. Urrezko domina lortu du 5,20 metrotako jauziarekin. Beste atleta batekin berdindu zuen, eta berdinketa hautsi izan nahi ez zutenek, biek jaso zuten urrezko domina.

Martinez de Rituertori ez zaio denboraldia oraindik amaitu, Espainiako selekzioak aukeratu egin baitu 20 urtez azpiko Munduko Txapelketara joateko. Calin egingo da txapelketa hori, Ko-

lonbian, abuztuaren 1etik 6ra bitartean.

Mario Estanga tolosarrak (Real Sociedad) ere parte hartu du pertika jauzian Espainiako Txapelketan, eta bederatzigarren postua lortu du 4,50 metroko markarekin.

Tolosa CF-ko lau atletek parte hartu dute Espainiako Txapelketa horretan. Hodei Caballerok laugarren postua lortu du 10.000 metroko martxako proban, 50.17,87ko marka eginez. Iker Esnaola bosgarren izan da pisu jauztiketara, 14,69 metroko markarekin. Ainhoa Muruak 18. amaitu du 400 metro hesietako proba, 1.08,26ko marka eginez. Irati Azpilgainek 100 metroko proban parte hartu du, baina deskalifikatua izan da.

Lakunza gaur hasiko da Munduko Txapelketan lehia

Erredakzioa Tolosa

Hegats igeriketako Munduko Txapelketa izango da jokoan egunotan Kolonbiako Cali hirian, eta bertan Igarondo Urpekoak taldeko hiru igerilari ariko dira lehia. Irati Lakunza tolosarra senior mailan lehiatuko da eta gaur izango du lehen proba,

400 metro ur azalekoa. Bigarrena etzi izango du, uztailearen 20an, 400 metro murgilaldia.

Bestalde, master mailan parte hartuko dute Patxi Mongek eta Gregorio Mancisidorrek. Uztailearen 25ean 50 metro ur azaleko proban ariko dira, eta uztailearen 26an 50 metro apnea eta 100 metro ur azalean.



ASTEAZKENA, 2022KO UZTAILAK 20
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Goltz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Presas betetzeko lanak atzeratu ditu udalak

Presas puzteko sistema konpondurik dago, baina «biodibertsitate eta habitatean kalterik ez eragiteko» atzeratzea erabaki dute



Pasa den urteko abenduan matxuratu zen presa puzteko sistema. A.I.

Asier Imaz Tolosa

Iazko abenduan Tolosan izandako uholdeen ondorioz, presa puzgarriaren sistema elektronikoa matxuratu egin zen. Geroztik, presa ez da erabilgarri egon eta ur emaria nabarmen gutxitu da Oria ibaian. Tolosako udal ordezkarien esanetan jada sistema konpondurik dago, baina, puzgarria puzteko moduan egon arren, «biodibertsitate eta habitatean kalterik ez eragiteko» atzeratu ditu udalak presa puzteko lanak.

Tolosako Udaletik zehaztu dutenez, hainbat bilera egin dituzte Ur Konfederazioarekin eta Ura Ur Agentziarekin eta bilera ho-

rien ondotik, konponketa lanak kontratatzeke prozesua gauzatu zuen udalak. Lanak modu egokian aurrera eramateko Alemaniako enpresa bati, bere garaian presa puzgarria instalatu zuen enpresari, alegia, esleitu zizkion lanak.

Hala, konponketa lanak amaituta, hainbat frogak ere egin ditu enpresak. Azken ikuskaritza eta frogak lanak baino ez direla falta esan dute, baina, puzteko moduan egon arren, «biodibertsitate eta habitatean kalterik ez eragiteko» atzeratu behar izan dituztela presa puzteko lanak.

Hain justu, ur emari baxuaren ondorioz, legar hondartzak eratu dira Oria ibaian eta zenbait txi-

rritxo txiki hegazti bikote ugaltzen hasi dira Tolosan. «Txirritxo txikia espezie kaltebera gisa katalogatuta dago Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan eta Babes Bereziko Araubidean dauden Basa espezieen Zerrendan babes bereziko erregimenean. Presa betetzeak, legar hondartzetan dauden arrautzak eta txitak galtzea ekarriko luke, eta debekatuta dago ugalketa-lekuak hondatzea eta suntsitzea», azaldu du Patxi Amantegi ingurumen zinegotziak. Ondorioz, fauna eta habitatari kalterik ez eragiteko, udalak, txirritxo txikiaren ugalketa aldia amaitu arte eta ur emari nahikoa izan arte itxarongo du presa puzteko.

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Zerkausitik Mugi Tolosa ibilbide osasuntsua abiatuko da. Bi txanda izango dira. Lehena, 10:30ean ibiltariak direnak eta ordu eta erdian bost kilometroko ibilbidea burutuko dute. Eta bigarrena, ibiltari lasaiak, 50 minutuz, kilometro bat egingo dute, 11:00etan hasita.

Kontzertuak

Tolosa. Estitxuren kontzertua, Mikel Santxez gitarrarekin eta Txema Garces baxuarekin. 3 tabernan, 19:00etan.

Erakusketak

Tolosa. Lleidako Txotxongilo Zentroak binilozko diskoen eta txotxongilo munduaren arteko harremana islatzen duen erakusketa jarri du Topic zentroan.

Tolosa. Irribarte, Arte, Irribarra eta euskara, erein eta hazierakusketak, Topic-en. Salmentaren zati bat kilometroetara bideratuko dute.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika izango entzungai.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Nafar away
11:30. Gaurkoan Tolosalde
17:30. Gaurkoan Tolosalde
22:00. Harri saldak.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunkoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.

TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalarretalorategiak, 1. Telefono zenbakia: 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro motelagoa izango dugu. Goizean zeruan hodeiak nagusituko dira eta goiz erdira arte tarteka euri-largar pixka bat egingo du. Goiz erditik aurrera, berriz, ateri geratuko da, eta arratsaldean zehar ostarte txiki batzuk irekiko dira. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean izango gara eta tenperatura are gehiago jaitziko da, 22-23 graduan joko duela-rik goia.

Bihar. Giro lasaia. Goizean hodeiak ugariak izango dira, baina ateri eutsiko dio. Eguneko erdiko orduetan ostarte batzuk irekiko dira eta eguraldi atsegina izango da, baina azken orduetan berri ere hodeiak nagusituko dira eta zerua estalirik geratuko da. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da eta tenperaturak gora egingo du, 27-28 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95
ataria@ataria.info
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA - ADUNA - INFO@RZABALA.COM

943 69 07 74 • RZABALA.COM

Afariak
asteazkenetik larunbatera.
Bazkariak
ostiral eta larunbatetan.
Beste egunak:
kontsultatu.